

## BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

### 2739

*EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 26koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «Zumaiako San Migel tuneletik gertu dagoen kolektorea eraikitzeo proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.*

2023ko maiatzaren 12ko ebazpenaren bidez, «Zumaiako San Migel tuneletik gertu dagoen kolektorea eraikitzeo proiektua» onetsi zen.

Gaur egun, Euskotrenen Bilbo-Donostia trenbidearen 79+400 KPan, tuneletik irteteen, bi ezponda malkartsuren artean sartuta dago trenbidea. Ezponda horietan behera inguruetako ura jaisten da, eta ur asko pilatzen da.

Horrez gain, ezkerreko ezponda higatuta dago, eta dagoeneko aipatutako lur jausiak gertatzen dira.

ETSren helburua da Zumaiako San Migel tunelaren inguruetan trenbide plataformaren egoera hobetzea.

Gaur egun, luizi bat dago Euskotrenen Bilbo-Donostia trenbidearen ezkerreko ezpondan.

Proiektu honetan aurreikusitako esku hartzeak San Migel tunelaren irteeran egingo dira, Bilbo-Donostia trenbidea Zumaiatik igarotzen den lekuan, 79+387 KPan. Hona hemen jarduketak laburbilduta:

- Euri uraren kolektorea diseinatzea.
- Inguru horretan ezponda egonkortzea.

Euri uraren kolektorea birjarriko da, lehendik dagoenak ez duelako behar besteko edukierik trenbide plataforman jasotako euria husteko; euri asko egiten duenean, urpean gelditzen da plataforma. Birjartze lan horietan, drainatze obraren sekzioa handituko da, husteko ahalmena handitzeko, eta irteera kota berrira egokituko da kolektorea, datozen hilabeteetan trenbidea berritzeo egingo diren obraren ondorioz aldatu egingo baita kota hori.

Trazadurak 85 metro inguruko luzera izango du, eta zanga zulatu eta eskoratuko da hura egiteko. Zatik handiena bide asfaltatu baten azpitik joango da. Trazaduraren gainerako zatian sastrakak eta belardiak daude, ahoan eta hasieran.

Halaber, trenbide plataformaren ezkerrean dagoen ezponda konpontzea aurreikusten da, San Migel tunelaren irteeran, Donostiarako noranzkoan; izan ere, lurra jausten da bertan. Horretarako, lur jausiei eusteko neurriak hartuko dira.

Lursailak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazioa biltzen du. Horretarako, desjabetzeen eranskinean ageri dira lurzatiaren zerrenda eta planoak.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituraren arloko jarduerak betearazteko beharrezkoak diren desjabetze espedienteak izapidetzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2.c) artikulua xedatzen duenaren arabera.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

Abenduaren 19ko 26/2022 Legeak aldatutako Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, beste lursail batzuk erabili beharra dakarten trenbide-lineen proiektuak, horien tartekak edo tren azpiegituraren beste elementu batzuk eraikitzeke proiektuak edo lehendik zeuden azpiegiturak aldatzeko proiektuak onartzen direnean, onespenez berekin ekarriko du onura publikoaren edo gizarte-interesaren deklarazioa, lursail horiek okupatu beharra izatea eta okupazio hori premiazkotzat deklaratzeko, ukitutako eta identifikatutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizituki berarekin dakarren arren proiektuak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluek ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrean jarri behar dela ezartzen dute, nahi duenak alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan ditzan, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zeintzuk diren ondo zehazteko.

Hortaz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Jendaurrean jartzea «Zumaiako San Migel tuneletik gertu dagoen kolektorea eraikitzeke proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, ebazpen hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan daitezzen, okerrak baldin badago zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 19.2 artikulua eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia kalea 1 – Lakua 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Aipatutako epean, ondasun eta eskubideen zerrenda Zumaiako udaletxeko iragarki taulan ere erakutsiko da jendaurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 26a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,  
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

2023ko ekainaren 9a, ostirala

## ERANSKINA

Finka zk.	Katastroko erref. eta udalerrria	Jabea	Eragin mota (m <sup>2</sup> )			Instalazio osagarriak	Izaera
			Erabateko desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi-baterako okupazioa		
001	09-024 Zumaia	Miguel Urbieta Mancisidor	-	-	426	-	Baratze
002	08-008 Zumaia	Narciso Amilibia Ezenarro	32	1.250	1.577	3	Belardia, bide asfaltatua eta oilategia
003	08-003 Zumaia	Isabel Gorriti Amor Raquel Gorriti Amor	-	6	19	-	Berezko landarediaren ezponda